

Gaia lantzeko galdera batzuk: Ahozkoa eta bere erabilera eskolan.

Kontuan izan Bigas (2000: 1. Parte), Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza (2007) eta Camps (2005)

Bigasena eta Camps-ena

Azaldu modu laburrean umeen artean gerta daitezkeen ezberdintasunak hizkuntzaren erabilerari dagokionean, etxean bizi dituzten esperientzia komunikatibo ezberdinen ondorioz.

Autore batzuek zenbait ikasleek eskolan dituzten arazoak azaltzeko ikasle horiek “eskolako hizkuntza” ulertzeko dituzten zailtasunak aipatzen dituzte. Baina “eskolako hizkuntza” esatean ez dira ikastetxean erabiltzen den kode linguistiko edo hizkuntza jakin batez ari (euskara, gaztelania, ingelesa, italiara,), beste zerbaitez ari dira. Azaldu zeri egiten dioten erreferentzia.

Bigasek azaltzen du Haur Hezkuntzan irakasleak antolatzen dituen egoera batzuetan ikasleek idatziaren zenbait ezaugarri duen ahozko erabilera egin behar dutela. Eta adibide pare bat ematen du. Eman zuk beste batzuk.

Azaldu zure hitzekin Camps-ek aipatzen dituen ahozko hizkuntzaren erabilera eta funtzioak eskolan, eta adibideren bat jarri funtzio bakoitzerako:

- hitz egitea eskolako bizitza soziala erregulatzeko
- hitz egitea ikasteko eta pentsatzen ikasteko
- hitz egitea irakurtzeko eta idazteko
- hitz egitea hitz egiten ikasteko

Bigas, M. (2000). *El lenguaje oral en la escuela infantil*. In *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (or. 43–70). Síntesis.

Camps, A. (2005). Hablar en clase, aprender lengua. In *Hablar en clase: Cómo trabajar la lengua oral en el centro escolar* (or. 37–44).

Espazioaren antolaketa

Galdera hauek lantzeko, kontuan izan “Ahozko hizkuntzaren trataera HHko bi gelatan” dokumentoa (eGelan), Bigas (2000: 2. Parte, 2008).

testua

1. adibidea:

Hezitzaile batzuk positibotzat hartu dute irakasleak ikasleak taldeka jesartzea lan egiteko. Zer dio Bigas-ek horren inguruan? Umeak taldeka jartze hutsak ziurtatzen du ume horiek ahozko hizkuntza garatzea? Zergatik? Gela txikia izanik ere, uste duzu aukerarik legokeela ikasgela beste era batera antolatzeko? Zer-nolako aldaketak egingo zenituzke? Lehentasunak jarri eta arrazoitu zure proposamena ahozko komunikazioa sustatzeari begira.

2. adibidea:

Hezitzaile batzuk negatibotzat hartu dute Haur Hezkuntzako irakasleek ikasgelak ireki eta beste gelakoekin espazioak konpartitzea (Negatiboa: Txokoak banatuta egotea gela eta gune desberdinetan / Gelen arteko espazioa txokoak egiteko aprobetxatzea / Gela zabalik egotea). Ikasleen komunikazio gaitasuna garatzeari begira, bada arazorik? Arrazoitu zure erantzuna

Zure esperientzia:

Egon zaren Haur Hezkuntzako geletan, ezagutu duzu espazioaren antolaketarik (orokorrean edo txokoren bat) ahozko hizkuntzaren lanketarako interesgarria izan daitekeena? Deskribatu espazio hori eta azaldu ahozko komunikazioaren garapenerako izan dezakeen balioa.

Bigas, M. (2000). *El lenguaje oral en la escuela infantil. In Didáctica de la lengua en la educación infantil* (or. 43–70). Síntesis.

Ume ikertzaileak

Galdera hauek lantzeko kontuan izan Equipo de educación infantil y primer ciclo de primaria del CP Antzuola (2010) testua.

testua

Antzuola proiektuak umeak ikertzaile moduan aurkezten ditu. Zer da zuretzat “ume ikertzailea”? Uste duzu umeen esperientziak/ideiak kontuan izan behar direla klasean, ala curriculumak soilik jarraitu behar dela? Kontuan izan 34. orrialdean bigarren atalean “zein gai aukeratu eta zein momentuan” agertzen den ostoen ideia. Zure ustez, zer izan behar du kontuan HHko gelak proiektu bat diseinatzerakoan? Pentsatu proiektu batean, nola landuko zenuke zure HHko klasean?

Equipo de educación infantil y primer ciclo de primaria del CP Antzuola. (2010). Niños y niñas investigadores: ¿de qué hablamos? In *Los proyectos de trabajo en el aula: Reflexiones y experiencias prácticas* (or. 29–42). Graó.